



Lehiaren Euskal Agintaritzak merkatu ibiltarien irekiera baldintzei buruzko txostena eman du

Posible den neurrian, postuen mugaketa, espazioa edo egun kopurua handituz konpentsatu beharko da, hori bai, osasun baldintzak bermatuta

BILBON, 2020ko ekainaren 4an / Elkarte batek planteatu duen kontsultaren ondorioz, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) Sustapen Txosten bat eman du. Txosten horretan esaten denez, merkatu ibiltarien postuetan egiten den %30eko mugaketa, merkatua egiten den espazioa handitzeko/aldatzeko edo merkatua egiteko beste egun batzuk egokitzeko neurrien bitartez konpentsatu daiteke.

Txostenak argi eta garbi uzten du horrelako merkatuak berriro irekitzeko erabakiak eta merkatarien, langileen, kontsumitzaileen eta bisitarien merkataritza jardueraren garapenean osasuna babesteko ezarri beharreko neurrien ezarpena Udalei dagokiela.

LEA/AVCren iritziz, Udalek merkatu ibiltariak berriro irekitzeko eska ditzaketan neurriek proportziozkoak izan behar dute, merkatarien, langileen, kontsumitzaileen eta bisitarien osasuna bermatzeko. COVID-19ak eragin duen osasun krisiaren testuinguruan, osasun publikoa zaintzeak jende pilaketak saihestea eskatzen du, Covid-19a transmititzeko arriskua murrizteko.

Merkatu egun bakoitzeko postu kopuruari dagokionez, LEA/AVCk onetsi duen txostenak esaten duenez “Udalak horretarako merkataritzarekin bateragarria den erabilera duen lurra izanez gero, hirigintza eta higiene eta osasun arloetako kontrolerako neurriekin, merkatu ibiltaria instalatzeko esparrua handitu ahal izango du, betiko tokian edo beste batean, saltzaileen merkataritza interesetarako neurri arinagoa baita”. Horrez gain, “merkatua egiteko beste egun batzuk baimentzeko aukera ere badago, ahalik eta saltzaile gehienek euren merkataritza jarduera gauzatu ahal dezaten”.

Elikagaien edo/eta beharrezko produktuen salmentarako horrelako merkatu ez egonkorrek berriro irekitzea baimentzeko orduan, Udalek ezin izango dituzte merkataritza arloko baldintza desberdinak ezarri elikagaien edo antzeko produktuen artean.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du



bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoei dagokienez.